

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,  
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko "Ibaia Kirol Hiria" kirol-ekipamendua ezarri eta definitzeko plan bereziari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko apirilaren 11n egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuaren aurrean 2025eko martxoaren 27an aurkeztutako Vitoria-Gasteizko "Ibaia Kirol Hiria" kirol-ekipamendua ezarri eta definitzeko plan bereziari. Hasierako onespene hori ingurumen-txosten estrategikotik ondorioztatzen denaren baldintzapean dago.

2. Dosierri jendaurrean jartzea, berrogeita bost egunez, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharak aurkezterik ere.

3. "Ibaia Kirol Hiria" kirol-ekipamendua ezarri eta definitzeko plan berezia udal-zerbitzu teknikoei helaraztea, plan horri eta planak izan ditzakeen eraginei buruzko txostena egin dezaten.

4. Erabaki honen berri ematea plan berezi honek eragiten dituen administrazio-batzarrei, bai eta espedientearen interesa duen pertsona orori ere.

5. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1.d) artikulua arabera, tramitazioak behartutako nahitaezko txosten lotesleetakoren bat jaso ezean, etene egingo da behin betiko onesteko epea.

Dosierri Vitoria-Gasteizko Udalaren Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 16an

*Alkate-lehendakaria*

**MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA**